

Garbiñe Olaizola | DONOSTIA

**G**arai bateko bertsolariek berpiztu zituzten atzo egungo bertsolariek Donostiako Kursalen bertsolaritzaren historia omentzeko egin zen ikuskizun dotorean. Etxahunetik hasi eta Egaña arte, historiak ezagutu dituen bertsolari ezagunenak taula gainean izan ziren, plazaz plaza, sagardotegian nahiz txapelketetan bailiran.

Gorrotxategik ondo baino hobeto irudikatu zuen Basarri. Haren ahots lodia eta bukaerako doinu bereziak ikusleen txaloak eta farreak eragin zituen. Abrigo luze eta korbatarekin atondurik atera zen taula gainera. Tartean, 1936ko gerra zibila igaro zuen eta sirenen doinuekin, pantailan Gernikako bonbardaketak eguneratu zituzten.

Herri miñarako tarterik ere izan zen. Onbuaren pean Argentinako erbestean Pello Mari Otañok —Jon Maia— Euskal Herria noiz ikusiko amestu zuen: *...beti izango zaitut gogoan, baina joan nahi det oster, euskal lurreko alborpe hartan nire hezurak uztera bertsorekin.*

Zuberotatik, Jean Mixel Bedaxagarrek eman zion bizia Etxahun, mendi magalean botatako bertso sortarekin. 1801ean Billabonako plazan hitz neurtuan aritu ziren Zabala amezketarra eta Txabalategi hernaniarraren apustua ere irudikatu zuten, 4.000 pertsonen aurrean bi orduz aritutakoa laburbilduz.

Pernando Amezketarraren garaiak iritsi ziren eta Amezke-



PABLO S. QUIZA

Jon Maia Otañoren herri mina islatu zuen ikuskizunean.

## Historikoen 'berpiztea'

**OMENALDIA.** Gaur egungo bertsolariek Bilintx, Otaño, Txirrita eta beste hainbat izen handiri bizia eman zieten

tako egungo alkate Bixente Gorostidi bere herritar xelebreari bizia eman zion. Xenpelar errenteriarren estilo bereziari men eginez, Unai Agirrek hasieratik ekin zion gaiari.

Iparragirrenen —Mendizabal— herri mina eta Bilintxen —Peñagarikano— eskontzeko nahia izan ziren ondoren, harik eta Oihane Enbeita *...nik zurekin ezkondu, nik zurekin ja, jai* erantzun zion arte.

Sebastian Lizaso Txirritarena

egiten eta Irazu Pello Errotarena, sagardotegi garaiko bertsoak bota zituzten. 1935ean lehen bertsolari egunean ere aritu zen Txirrita taula gainean, euskaraz hitz ezin egin eta erderarik jakin ez, latinez hasi beharraz kexu zela.

Xalbadorrek hildako emaztearen hutsunea agerian utzi zuen eta haren aurrean, hutsik zegoen emaztearen arropa zintzilikatu zuten eskenategian. Lazkao Txikik Xalbadorri botatako

bertsoak entzun ziren. Bitartean, 1958an Bizkaiko bertsolari txapelketak hasi ziren. Bilboko Arenalean inoiz ikusitako jendetza bildu zen, 12.000tik 14.000ra batu zirela zioten orduko egunkariak.

Amuriza eta Lizaso bikoteak, bata bestearengatik plazetan ikasitakoa bota zioten elkarri. Txapelketetan eta bertso eskoletan hezitutako gazteak, sagardotegietako goxotasunera itzuli nahi izan zuten, amaieran.

## Elizondon abiatuko da gaur Nafarroako Bertsolari Txapelketa

E. Elizondo | IRUÑEA

XXX. Nafarroako Bertsolari Txapelketa abiatuko da gaur, arratsaldeko 16:30etan, Elizondoko Antxitonea trinketean. Txapelketa Maria Izeta zenaren omenez antolatu dute, bertsolaritzaren alde bere bizitza osoan egin zuen lana eskertzeko asmoz.

Gaurko lehen kanporaketan, sei bertsolari ariko dira lehian, finalerdietarako txartela lortzeko asmoz: Mikel Altzuart, Ek-hine Etxepeteleku, Iñigo Ibarra, J. L. Harinordoki Laka, Fermin Mihura eta Julen Zelaieta, alegia.

Gaurko saioko lehen biak zuzenean sailkatuko dira Leitza hilaren 18an eginen den finalerdirako. Datorren larunbateko kanporaketan, Lodosan, beste bi bertsolari sailkatuko dira zuzenean finalerdietarako eta, beste lau, gaurko eta larunbateko saioetan lortutako puntuazioaren arabera sailkatu egiten dira.

Hiru finalaurreak Leitza, Iruñean eta Izpura jokatu dira hilaren 18tik 25era, eta txapelketako finala Beran izanen da, datorren apirilaren 1ean.

**hitzak egin gaitu**

Martxoaren 10ean Korrika 12k omenaldia egin dio bertsolaritzari. Bertan, bertsolaritzaren historiaren azken 200 urteotako pasarterik eta bertsorik esanguratsuenak plazaratu dira.

Martxoaren 17an eta 18an, Euskaldunon Egunkariarekin batera, bertso eta pasarte horiek eskuratzeko aukera izango duzu, liburuxka apain eta dotore batean bilduak.

**Egunkaria + 300 pta.**

**Egunkaria**

**korrika**

**aek**